

Jai egiteko eguna

esku-hartzen zuela Nazaretoko Jesusek, eta jendea jolasean eta atseginezko giroan zebilen lekuan egotea atsegin zitzaiola (Jn 2,1-12; 2,23; 5,1; 7; 10,22). Ohartzekoa da benetan Jesusen egite garrantzizkoenak herri-jaietara lotuta daudela, San Joanen aipaturiko testuak kontutan baditugu.

S. Atanasioaren esaldia da: "Etengabeko jaialdi bihurtzen du bizitza Kristo gurutztillatuak". Kristau-liturgia osoa, eta bereziki *sakramentuak dira alaitasunaren eta jaiaren lekua eta iturria, *Bazkoaren gertakari alai eta jalezkoaren ospakuntza direnez. Ik. Liturgia.

Jesusen nekaldi-heriotzetatik banandu ezinezko moduan loturik dago, bestalde, kristau-bizieraren eta ospakuntzen jalezko izpiritua. Jaiak ez dauka, beraz, kristau-ikuspegitik begiratuta, hainbesteri alaitasuna eta libertatea eragozten dizkien oinaze, arazo eta nekeetatik ihes egitea izaterik inoiz. Alderantziz, "eskatologiako jai unibertsal eta betirakoan hemengo zapalkuntza guztiak gainditzeko itxaropen, eskakizun eta mezu gisa ospatzera behartzen gaitu kristauok edozein jalezko izpirituk (Ap 21): horren aiderazpen eta horretarako eskakizun askatzailea da kristau-jaiak.

Felix Placer Ugarte
Itz.: Paulo Agirrebaltzategi

Jai egiteko eguna

Eliza Katolikoan fededun guztiak meza entzutera eta jopu- edo mirabe-lanik ez egitera behartuak daudenekoa da. Igande guztiez gain, jaiegun batzu daude, Eliza osoan gordetzen direnak, eta beste batzu, tokiko Elizak bakoitzarenak.

Ik. Jaiak; Domeka; Igandea.

Jaieguna

Ik. Jaiak.

Jaiera

Ik. Debozioa.

Jaiera(k)

Sin.: Debozio(ak)

Kristau-hizkerari dagokionez, santuren bati, Ama Birjinari (berorren *deitura jakinen batetan), kristau-misterio jakinen bati edota erlijiozko gauzaren bati buruzko atxekimendua, ihardukizun eta ariketa erlijiozko eta deboziozotan adierazten eta agertzen dena.

Eliza Katolikoak onartu eta sarritan bultzatu egiten ditu horrelako jaiera konkretuak: Jesusen bihotzarena, Ama Birjinare-

na, Jesus sakramentutuarena, Jesusen nekaldiarena, gurutzearena, santuenak, etab.

Singularrez, *erlijiozikunetan edo *otoitzean fededunak agertzen duen eraspen berozko jarrera esan nahi du. Ik. Debozioa, 1.

Jaiarazko bazkuna

Sin.: Pietatezko bazkuna

Erlijiosoak izan gabe, helburu elizkoietarako eta jaiarazkoetarako elkartzen diren fededunen erakundea, eliz *hierarkiak dekretuz onetsia.

Ik. Elkartea; Kofradia.

Jaiarazko meza

Sin.: Debozizko meza

Liturgi egutegitik kanpo, nor bere jaiarari erantzuteko edo gertakari bereziren bat ospatzeko aukeratu eta eman daitekeena. Meza-liburuak berak bilduak eta eratuak ditu horretarako hainbat meza-formula.

Ik. Meza; Debozioa, 2.

Jainismoa

Jina hitz sanskritotik dator: "garailea" adierazten du, hau da, norberaren grinak gainditu dituen.

India mendebaldeko erlijioa da, *budismoarekin bateratsu, K.a. VI. mendean eratu. Mahavira jakintsua hartzen dute erlijio-sistemaren eratzaitzat, nahiz eta horren elementuak eta joerak lehenagotik herriaren tradizioan aurkitu.

Brahmanismo politeistaren aurka burrukatuz, beste muturrera jo zuen jainismoak; horregatik jainkogabetzat ere jo daiteke.

Jainismoaren ezaugarri eta bereizgarriak nagusiekin *ahimza edo bortxaezaren irakatsia da. *Bizia, edozein animaliatan azaltzen delarik ere, sakratua omen da, eta horrienganako begirune erabatekoa eskatzen du fededunaren aldetik. Horregatik, edozein hil-keta eta bortxa fisikoren kontrakoak izateaz gain, barazkijaleak dira jainistak: barazkiak eta fruitu batzu bakarrik jan ditzakete. Ahimza da jainismoaren lehen agindua.

Gandhi erlijio honetan hezi zen: ahimza edo bortxaeza erabili zuen taktika politiko gisa.

Etika latza predikatzen du jainismoak, bai monako edo *sadhū-entzat bai *laiko --mundutar-- edo xravaka-entzat: agindu-sail batek denentzat balio du, baina monakoek badituzte berentzako agindu bereziak ere.

Aszetika gogorra eta biziera soila eskatzen du jainismoak. Aszesi-ariketen bidez,

hain zuzen ere, lortzen omen da berraragiztapen-katea haustea, *karma-ren legetik norberaren buruari jareinez eta *moksa-ren bidez *nirvana-ren antzeko zoriona lortuz. Jainismoarentzat, ordea, nirvana-n norik bere nortasuna eta banakotasuna gorde egiten du, gorputz materialetik atera ondoren. Ik. Aszesia.

Gurtza edo kultu oso mugatua du jainismoak. *Tenpluak ere baditu, batzutan oso ederrak. Tirthankara edo bikaindurara iritsitako gizakién izenean eraikitzen dituzte tenpluak, eta horiei eskaintzen diete *gurtza.

Indian sortua, Indian finkatu da jainismoa, beste inora zabaldu gabe. Hiru bat milioi dira jainistak; eta nahiz eta kopuruz asko ez izan, garrantzi handia eduki izan dute Indiako historian zehar.

Monakoek leku berezia dute jainismoan: horiek mantenduz, nolabait horiek daramaten biziera asetikora hurbilduz joan behar dute *laikoek edo mundutarrek. Ik. Mundua/Erlijioa.

K.a. III. mendetik bi joera nabarmentzen hasi ziren monakoen artean: digambara-k, edo erabat biluzik dabiltzanak, eta xvetambara-k edo zuriz jantzita dabiltzanak. Bereizkuntza hori K.o. I. mendean finkatu zen eta gaur arte iraun du. Hala ere, irakasbide-mailan ez du horrek bereizkuntza handirik eraman; eta biluziak ere jendaurrean jantzita ibiltzen dira. Izpiritualki osatuaren adierazgarria izan nahi du *biluztasunak.

Ik. Erlijioa eta erlijioak.

Paulo Agirrebaltzategi

Jainkoa (eta jainkoak)

Ikuspegi filosofikotik begiratuta, Jainkoa da Izate gorena, *absolutua eta perfektua edo osabetea, *baldingabea, baztergabea (*baztergabetasuna), betierekoa (*betikotasuna), ahalguztiduna (*ahalguztia), guztiz santua eta ona, izaki guztien izatearen sorburua, oinarria eta azken xedea.

Filosofoen jainokoko printzipioa erlijioek izaki bizi bihurtu, beraren irudia eta beraren izena duena, gehienetan erabat bestelakoa dena, gizon-emakumeen *zoria zedarritzen duena eta nolabait horien jokabide etikorako arau nagusi eta funtsezkoak "ematen" dituen. Ik. Salbama; Bestelakoa.

Erlijio bakoitzak duen Jainkoaren irudia ezberdina da, eta Haren bikaintasun edo dohainetatik bata ala bestea nabarmentzen du. Esan daiteke, esan, erlijio bakoitzaren funtsa eta ezaugarri eta bereizgarriak nagus-

siena berak duen jainokokoaren irudikapena dela.

Jainokoko edo jainkotasuna hauteman eta irudikatzean, erlijioak bitan sailkatu ohi dira nagusienik: politeistak eta monoteistak: Diteismoa (*triteismoa) eta *henoteismoa haien formak besterik ez dira, azken batez. Ik. Erlijioen tipologia; Erlijioa eta erlijioak.

Monoteismoak Jainko bakarra ezagutzen du: hau da, Jainko pertsonal bakarrak biltzen ditu jainokokoari dagozkion dohain guztiak. Politeismoak, berriz, hainbat izaki naturaz-gaindikotan banatzen ditu jainokokoaren dohainak eta munduan horrek betetzen dituen eginkizunak. Dena dela, politeismoa ez da izaten sistema zurruna; jainkoen funtzioak trukatu egiten dira sarritan; bestalde, jainko anitzek Izate Absolutuaren nortzapen ezberdinak dira sarritan; gainera maiz jainko ugarien artean bat nabarmendu izan du erlijioak: Zeruetako Jauna, Jainkosa Handia, Olinpoko buruzagia, etab.

Jainokokoaren hautemate eta irudikapen gizakumezko ala emakumezkoa da erlijioen artean aurkitu ohi dugun bestelako bereizkuntza: jainkoa eta jainkosa. Baina maiz androginoak dira jainkoen irudikapenak. Eta sexu-mailan bezala, bestelakoetan ere jainokokoaren irudia "coincidentia oppositorum" edo munduan elkarren kontratatzat agertzen zaizkigun errealtateen bateragunetzat agertzen da: bi-banatasun gisa (ona/gaiztoa, sortzailea/suntsitzailea, zerua/lurra, eta abar).

Erlijio gehienen arabera, Jainkoaren hautematea, irudikapena eta ezagutza ez dira giza arrazonamenduaren ondorioa, eta bai barne-intuizioaren edota goi-agerkondearen fruitua. Jainkoaren izanaren eta izatearen egiaztabide eta argibiderik funtsezkoena erlijiodunaren aurrekoen erlijiozko esperientzia eta fedea dira. Ik. Agerkundera; Fideismoa; Tradizionalismoa, 1.

Kristau-teologiak, hala ere, Jainkoaren izatearen egiaztabideak eta frogantza landu ditu, fedearen eta esperientziaren arazoizkotasunaren oinarritzat. Ik. Jainkoaren izatearen egiaztabideak.

Jainkoaren sinestea erlijio ia denetan erabat adierazgarria eta funts-funtsezkoa da. Erlijioaren sorreraren eta jainkoaren ideiarekin sorreraren arazoak lotu-lotuta doaz elkarrekin.

Baina ba ote da erlijiorik, jainko gabe-korik? Inoiz ateotzat jo izan dute budismoa; baina barrutik begiratu, gaurko autoreek jainokokoaren muturrerainoko subtilizazioa ikusi uste dute Budaren irakatsian. Jainkoa-